

# BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

4958

*EBAZPENA, 2024ko urriaren 16koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez erregistratu, argitaratu eta gordailutzen baita Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko eskola-garraioko laguntza-zerbitzua eta jolastokiko zaintza-zerbitzua ematen duten enpresen hitzarmen kolektiboaren batzorde paritarioak lortutako akordioa, 2024rako sol-data-taulei buruzkoa (hitzarmen-kodearen zenbakia: 86002445012005).*

## AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2024ko urriaren 14an, REGCON erregistroan aurkeztu da aipatutako hitzarmen kolektiboko batzorde paritarioaren akordioari buruzko dokumentazioa, enpresaren eta sindikatuen ordezkariak sinatua.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren 2024ko ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 2. artikulua Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila sortzen du; eta, 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan-arloko legeek lan-harremanei buruz ezartzen dutena egikaritu behar du sail horrek, besteak beste.

2024ko ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorraren arabera, indarrean jarraituko dute Jaurlaritzako Lehendakariaren eta Jaurlaritzako sailen egitura eta egitekoak finkatzen dituzten arau organikoek. Horrenbestez, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 2021eko urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuak (geroago uztailaren 6ko 167/2021 Dekretuaren bidez aldatuak) 10.1.i) artikuluan xedatzen duenez, Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Hitzarmen Kolektiboan, Akordio Kolektiboan eta Berdintasun Planen Erregistro telematikoa zuzentzea eta kudeatzea, Erregistroa arautzen duen dekretuan eta indarrean dagoen gainerako araudian aurreikusitakoari jarraikiz.

Bigarrena.– Sinatutako akordioak Langileen Estatutuari buruzko Legearen 85., 87., 88., 89. eta 90. artikuluek xedatutako eskakizunak betetzen ditu.

Hirugarrena.– Aurkeztu den akordioa inskribatzeko moduko egintza bat da, Lan-hitzarmenak eta akordio kolektiboak erregistratu eta gordailutzeari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuaren 2.1.a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Inskripzio-eskaera eta erantsitako dokumentazioa aztertuta, egiaztatu da legez eskatzen diren baldintzak betetzen dituela eskaerak; beraz, bat etorri Euskal Autonomia Erkidegoko laneko hitzarmen eta akordio kolektiboak eta berdintasun-planak erregistratu eta gordailutzeari buruzko urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuaren 9. artikuluan xedatutakoarekin (otsailaren 14ko 20/2023 Dekretuak aldatu zuen dekretu hori), honako hau

## EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Agindua ematea akordioa inskribatu eta gordailutu dadin Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboan eta Berdintasun Planen Erregistroan, eta horren berri aldeei jakinaraztea.

2024ko urriaren 29a, astearta

Bigarrena.– Akordioa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 16a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,  
ANGEL LAPUENTE MONTORO.

2024ko urriaren 29a, asteartea

**AKORDIOA, EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAREN MENDEKO  
ESKOLA-GARRAIOKO LAGUNTZA-ZERBITZUA ETA JOLASTOKIKO  
ZAINZA-ZERBITZUA EMATEN DUTEN ENPRESEN HITZARMEN KOLEKTIBOAREN  
BATZORDE PARITARIOARENA, 2024. URTEKO SOLDATA-TAULEI BURUZKOA**

Bilbon bildu dira, 2024ko urriaren 14an, Lan Harremanen Kontseiluaren lurralde-egoitza birtua-lean, batetik, LAB sindikatua –ordezkaritza sindikalaren gehiengoa baitu aipatutako hitzarmenaren batzorde paritarioan– eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko eskola-garraioko laguntza-zerbitzua eta jolastokiko zaintza-zerbitzua ematen duten enpresen elkarteak, biak ere hitzarmen horren batzorde paritarioko kide diren aldetik, eta aho batez lortu dute akordio hau:

«Lehenengoa.– 2024rako soldata-taula berriak onartzea, Eusko Jaurlaritzako erreferentziazko langileei aplikatu zaien % 2ko igoera aplikatuz eguneratuak (akordio honi erantsi zaizkio). Baldin eta Eusko Jaurlaritzak taula berri batzuk argitaratuko balitu erreferentziazko langileentzat, igoera gehigarri bat aplikatuta 2024. urterako, Batzorde Paritarioak berriz ere eguneratuko lituzke taula sektorialak, Eusko Jaurlaritzaren erreferentziazko tauletako igoeraren % 100arekin parekatzeko 2024ko urtarrilaren 1erako atzeraeraginekin.

Bigarrena.– 2024ko azaroko nominan eguneratuko dira 2024ko soldata-etaulak, aipatutako igoera aplikatuta.

Hirugarrena.– 2024ko taula berrien eguneraketarengatik 2024ko urtarriletik sortu diren atzerapenak 2024ko abenduko nominan ordainduko dira beranduenez eta, beraz, hilabete horretan geratuko dira erregularizatuta 2024ko urtarriletik urrira bitarteko nominak.

Laugarrena.– Emilia Málaga Pérez Lan Harremanen Kontseiluko presidenteari eskatzea lan-agintaritzari aurkeztu diezaiola 2024ko soldata-taula berriak onartzeko akordio hau, erregistratu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ofizialki argitara dadin.»

**2024. URTEKO SOLDATA-TAULAK**

(% 2KO IGOERA – 83/2024 EBAZPENEA, UZTAILAREN 31KOA, EAE)

2024. urteko soldata-taula (euro)		Hilean (euro)	Orduaren balioa (euro)
Oinarrizko soldata x 12	25.188,10	2.099,01	15,82
Iraunkortasun-plusa x 12	447,64	37,30	0,28